

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 1532

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 8koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, 2022ko ekitaldian eman diren laguntzen onuradunen zerrenda jakitera ematen duena, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako dirulaguntzak arautzen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2022ko maiatzaren 31ko Aginduak finkatutako esparruan (2022ko ekainaren 15eko EHAA).*

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko maiatzaren 31ko Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, espedienteak ebazten dituen behin betiko ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta jakinarazpen-balioa izango du argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, dirulaguntzak emateko ebazpena EHAA-n argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, dirulaguntzen espedienteak ebazten dituen Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren 2022ko azaroaren 11ko behin betiko Ebazpena jakinarazi ondoren, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea, ebazpen honen eranskinean agertzen den bezala, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko maiatzaren 31ko Aginduaren esparruan emandako dirulaguntzen zerrenda. Agindu horren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako laguntzen deialdia egin zen.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 8a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,  
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.

## ERANSKINA

## Konfederazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Bizkaia	EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioa	70.000

## Lurralde-mailako federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Denon Eskola Guraso Elkartearen Federazioa	48.368
Gipuzkoa	Baikara Gipuzkoako Eskola Publikoko Ikasle Gurasoen Elkartearen Federazioa	57.074
Bizkaia	Bige Gurasoen Elkartea	64.558

## Bestelako federazioak

Lurraldea	Erakundearen izena	Guztira (euro)
Araba	Fapacne Ikastetxe ez Estataletako Ikasleen Guraso Elkartearen Arabako Francisco de Vitoria Federazioa	14.595
Araba	Egibide-Egiampa Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioa	6.777
Bizkaia	Bigef Bizkaiko Ikastoletako Guraso Elkartearen Federazioa	21.538
Bizkaia	Gidari Santurtziko Ikastetxe Publikoetako Guraso Elkartearen Federazio Koordinatzailea	6.243
Bizkaia	Eigef Euskadiko Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioa	8.267
Bizkaia	Bidelagun Guraso Elkartearen Federazioa	14.401
Gipuzkoa	Gigef Gipuzkoako Ikastoletako Guraso Elkartearen Federazioa	33.694
Gipuzkoa	Getgek Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Federazioa	4.485